

2

**COVID-19
Gipuzkoan
turismoa
suspertzeko
plana**

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**


Ekonomia Sustapena,
Turismoa eta Landa
Ingurunea

2020 Apirila
-

www.gipuzkoa.eus




1. ESPARRU OROKORRA



- 1.1** Turismoaren garrantzia Gipuzkoan
- 1.2** Turismo estrategia
- 1.3** Turismoaren egungo erronkak

2. SUSPERTZEKO PLANA




- 2.1** Lehen ardatza: **BABESTU**
- 2.2** Bigarren ardatza: **PRESTATU**
- 2.3** Hirugarren ardatza: **SUSTATU**



1. ESPARRU OROKORRA


- Turismoa Gipuzkoako hirugarren sektore ekonomikoa da. 36.500 lanpostu 2019an.
- Krisi honetan turismoa, industria ekonomikoko bezala, **kaltetuenetakoa da.**
- Ziurgabetasun handia dago.





1.1 TURISMOAREN GARRANTZIA GIPIIZKOAN

- Turismoak ekonomiari egindako ekarpenari dagokionez, Gipuzkoan 2018an egindako **gastu turistikoa % 4,4** hazi zen aurreko urtearekin alderatuta (Euskadiko batez bestekoa baino 0,4 puntu gehiago). Zenbaki absolutuetan, Gipuzkoako gastu turistikoa **1.849 milioitik 2017an 1.930 milioira** igaro zen 2018an, eta **Euskadiko gastu turistikoko osoaren % 41,5** izan zen 2018an.
- Gipuzkoa turismoak ekonomian **trakzio-eragin handiena duen lurralde historikoa** da, 2018ko BPGren **% 7,6** hartzen baitu, **hirugarren sektore** gisa finkatuz merkataritzaren eta higiezinaren jardueren atzetik. Ehuneko hori mantendu egiten da aurreko urtearekin alderatuta, Eustaten datuen arabera.





1.1 TURISMOAREN GARRANTZIA GIPUZKOAN



- Turismoaren bilakaerari dagokionez eta Eustatek egiten duen sailkapenaren arabera, establezimendu turistiko hartzaile bezala hotel-establezimenduak, landetxeak eta apartamentu turistikoak hartzen dituelarik, Gipuzkoan 2019an **756 establezimendu hartzaile** (2016an baino **% 20** gehiago) eta **5,2 milioi plaza** (2016an baino **% 10** gehiago) eskaini dira, **2.122 landunei** (2016an baino **% 8** gehiago) emplegua emanez.



- Aldi berean **1,3 milioi sarrera** (2016an baino **% 20** gehiago) eta **2,8 milioi gaualdi** (2016an baino **% 16** gehiago) erregistratu dira.
- Datu hauek osatuz, Gipuzkoara etorritako bisitari, turista eta txangozale kopuruaren zenbatespenari esker, Gipuzkoan **txangozaleak eta hurbileko turismoak** uten garrantzia azpimarratu behar da.




1.1 TURISMOAREN GARRANTZIA GIPUZKOAN



- Hala, 2019an Gipuzkoara **4,2 milioi bisitari** etorri zirela kalkulatu zen, eta horietatik 1,3 milioi turistak eta **2,9 txangozaleak** izan ziren, hau da, **gutzizkoaren ia % 70**.




- Bisitarien **% 35 Hego Euskal Herritik** etorritakoak ziren eta **% 22 Frantziatik**.





1.1 TURISMOAREN GARRANTZIA GIPUZKOAN





1.2 TURISMO ESTRATEGIA GIPUZKOAN

- Gipuzkoako eredu turistikoak **balio erantsiaren alde egiten du, eta Gipuzkoa kalitatezko helmuga gisa posizionatzearen alde**, beren nortasuna eta kultura (euskara, gastronomia, ohiturak), **baliabide naturalak** (mendia, itsasoa) eta **egoiliarrekiko bizikidetza** errespetatzen eta baloratzen dituzten bisitariarentzat, **gizarteari zein lurraldeko ekonomiari onurak ekarriz**.
- Estrategia hau **eredu turistiko iraunkor** baten kudeaketarekin estu lotuta dago, **gizarte, kultura, ingurumen eta ekonomia alderdien arteko oreka** bermatuz eta **hazkunde ekonomikoa, enplegua eta aberastasuna** lurralde osoan sustatuz.
- Helburua da turismoa modu arduratsuan kudeatzea **2030 Agendako helburuei** ekarpen handia egiteko gai den sektore gisa.





1.3 TURISMOAREN EGUNGO ERRONKAK

COVID-19 dela eta, aurrekaririk gabeko krisia bizi dugu eta sektoreak **ziurgabekotasunari aurre egin** behar dio, oraindik galdera asko airean daudelarik, hala nola mugen irekiera datak, ekitaldiak egin ahal izango diren eta nola, zein baldintzetan, ostalaritzaren irekiera, etab.



Dimentsio globala duen krisi ekonomikoa.



Egiturazkoa den krisia.



Susperraldia motela izango da.



1.3 TURISMOAREN EGUNGO ERRONKAK

- Kontuan izanik aurrekaririk gabeko krisia dela eta oso azkar eboluzionatzen duela, oso zaila da COVID-19 krisiak turismoan izango duen eragina kalkulatzeko. Azken gertaerak (berrogeialdi-neurriak, bidaien debekuak eta mugen itxierak) eta aurretiko krisi-ereduak (SRAS 2003an eta munduko krisi ekonomikoa 2009an) oinarri hartuta, **Turismoaren Mundu Erakundeak uste du nazioarteko turisten etorrerak % 20 eta % 30 artean murriztu daitezkeela 2020an.**
- **COVIDek 2009ko krisiak baino ia 10 aldiz gehiago eragingo luke turismoan, hau izanik krisi honek gehien kaltetu dituen sektore ekonomikoetako bat.**



1.3 TURISMOAREN EGUNGO ERRONKAK

- Estatu mailan ere, turismoa da **sektore ekonomiko kaltetuenetako bat**, aisialdi- eta kultura-jarduerekin eta beste sektore batzuekin batera, hala nola elikaduraz bestelako txikizkako merkataritza, ehungintza, automobilgintza eta kontsumo iraunkorreko ondasunak.
 - **Sektoreak galdutzat ematen du gutxienez urteko negozioaren %80**; izan ere, Aste Santua, urteko lehen opor-bolada handia, ekitaldi bateko turismo-jardueraren % 15 inguru da, eta zero fakturazioa izan zuen. Eta udako kanpainarako aurreikuspenak, fakturazioaren % 70 inguru, ez dira oso itxaropentsuak.
 - Excelturren arabera, sektorearen **galerak 100.000 milioi eurokoak izango dira** urte amaieran.



2. SUSPERTZEKO PLANA

- Turismoa lanpostu asko sortzeko gai den sektorea da, **erresilientea** eta **beste sektore batzuen susperraldian eragin biderkatzailea** izateko gaitasuna duena.
- Sektorea arintzeko eta suspertzeko **plan koordinatu eta indartsu batek onura handiak eragin ditzake** Gipuzkoako ekonomian eta enpleguan.
- Esparru orokorrean azalutako ikuspegia une oro kontuan hartuta, Gipuzkoak sektore turistikoari laguntzeko krisiaren aurkako plan bat proposatzen du, **hiru ardatz hauetan egituratuta**:





2. SUSPERTZEKO PLANA: ARDATZ ETA PROGRAMEN LABURPENA




2.400.000 €



BABESTU 1. ARDATZA

- COVID-19: Autonomoentzako eta turismo-sektoreko ETEentzako laguntza programa. **300.000 €**
- Turismo agenteen dirulaguntza izendunen programa. **660.000 €**



PRESTATU 2. ARDATZA

- Ingurune seguruak sortzeko programa. **100.000 €**
- COVID-19 osteko berrabiatze programa. **200.000 €**
- Merkatuak berrezagutzeko programa. **100.000 €**



SUSTATU 3. ARDATZA

- “Bertan duzu” komunikazio programa. **100.000 €**
- Gipuzkoa bisitatzeko pizgarrien programa. **600.000 €**
- “Gipuzkoa hedatuz 2021” sustapen programa. **100.000 €**
- Gipuzkoako turismo-bulegoa lurralde-sustapenaren ardatz egituratzaile gisa kokatzeko programa. **300.000 €**



2.1 1. ARDATZA: BABESTU



Turismo-sektoreak pertsonak eta haien ongizatea lehenesteko konpromisoa du; beraz, turismoaren erantzunak neurrikoa, koherentea eta osasun publikoaren mehatxuarekiko proportzionala izan behar du.

Ez dakigu noiz ikusiko dugun krisi honen amaiera, baina lanpostu asko arriskuan daudenez **enpresen bizirauteko mekanismoak** indartu behar dira etorkizun hurbilean, **premiazko neurri ekonomikoak hartu enplegua babestu, eta enpresen jarduerari laguntzeko.**



2.1.1 BABESTU: COVID-19: AUTONOMOENTZAKO ETA TURISMO-SEKTOREKO ETEENTZAKO LAGUNTZA PROGRAMA



300.000 €



- **Helburua:** Turismo-zerbitzuen sektoreko autonomoei eta enpresa txikiei COVID-19k sortutako gastuei aurre egiteko dirulaguntzak.
- **Hartzaileak:** Autonomoak eta 10 langile baino gutxiagoko enpresa txikiak, jarduera nagusi hauetakoren bat dutenak: Turismo-agentzia hartzaileak, turismo-gidak eta turismo aktiboko enpresak.
- **Jarduteko aldia:** 2020ko apirila eta maiatza.



2.1.2 BABESTU: TURISMO AGENTEEN DIRULAGUNTZA IZENDUNEN PROGRAMA



600.000 €



- **Helburua:** Dirulaguntza izenduna duten entitateek Covid-19k sortutako gastuei aurre egiteko dirulaguntzak.
- **Hartzaileak:** 2020ko Turismo Zuzendaritzako aurrekontuetan dirulaguntza izenduna duten entitateak eta eskualdeak.
- **Jarduteko aldia:** 2020ko martxoa-maiatza.



2.2 2. ARDATZA: PRESTATU



Krisi handi honen aurrean, sektorea prestatu behar da COVID 19ak sortutako erronka berrien aurrean.

Espero izatekoa da krisiak eta krisiaren ondorioek eragina izango dutela **bisitarien** lehenetasunetan eta kezketan, bai eta haien baliabideetan eta jokabideetan ere.

Ondorioz, eskaintza turistikoa ere berrasmatu egin beharko da, eta garai berri baten eta turismoa ulertzeko modu berri baten beharretara egokitu.



2.2.1 PRESTATU: INGURUNE SEGURUAK SORTZEKO PROGRAMA



100.000 €



- **Helburua:** Azterlanak, ekimenak, protokoloak eta abar sortzea, turismo-eskaintzaren eta sektoreak eskaintzen dituen zerbitzuen segurtasuna bermatzeko.
- **Onuradunak:** Gipuzkoako turismo-enpresen elkarteak.
- **Jarduteko aldia:** 2020ko maiatzatik urte amaierara arte.



2.2.2 PRESTATU: COVID-19 OSTEKO BERRABIATZE PROGRAMA



200.000 €




- **Helburua:** Azterlanak, aholkularitza zerbitzuak, etab erraztea, jarduerara itzultzeko funtsezko puntuak definitzeko, hala nola negozioaren berrantolaketa, berrikuspenak, produktu egokitzapenak, prezioen maila, mezu egokienak, etab.
- **Hartzaileak:** Gipuzkoako turismo-enpresen elkarteak eta eragileak.
- **Jarduteko aldia:** 2020ko maiatzatik urte amaierara arte.



2.2.3 PRESTATU: MERKATUAK BERREZAGUTZEKO PROGRAMA

 **100.000 €**



- **Helburua:** Konfiantza berrezartzeko eta eskaria suspertzeko kontsumitzaileen lehentasunetan eta krisiaren ondorengo jokabidean izan daitezkeen aldaketak ulertzea, azterlan espezifikoen bidez: merkatu azterketak, kontsumoaren tendentzien estudioa... Hasiara batean hurbiltasun-merkatuak eta, ondoren, nazioarteko merkatu estrategikoak.
- **Hartzaileak:** Gipuzkoako turismo-enpresen elkarteak, eta eragileak.
- **Jarduteko aldia:** 2020ko maiatzatik urte amaierara arte.



2.3 3. ARDATZA: SUSTATU



Krisiaren berehalako ondorioak arindu eta agertoki berria argitu ondoren, **turismoa sustatzeko programak** martxan jarri beharko dira.

Puntu honetan berebiziko garrantzia izango du **turismoak gizartean dituen onurak integratzeak** eta **herritarrak tokiko produktuak kontsumitzearen beharraz eta garrantziaz sentsibilizatzeak**.

Izan ere, turismoaren sektorea suspertzeko, **lehenik eta behin, gipuzkoarren lankidetzeta eta konpromisoa** beharko da, eta, ondoren, Euskadiko, estatuko eta atzerriko bisitariak ere erakarriko dira.



2.3.1 SUSTATU: “BERTAN DUZU” KOMUNIKAZIO PROGRAMA

 **100.000 €**



- **Helburua:** Gipuzkoa ezagutzeko eta kontsumitzeko espektatibak sortzera eta gogoia ematera bideratutako kanpainak, turismo-eskaintza erakargarriaz eta gizarteari eta tokiko ekonomiari egindako onuraz sentsibilizatuz, lehenik eta behin Gipuzkoa eta Euskal Herri osoko egoiliarrek eta baita estatukoak ere.
- **Lan Taldea:** Eusko Jaurlaritza, Udalak eta eskualdeak.
- **Jarduteko aldia:** 2020ko ekainatik aurrera.



2.3.2 SUSTATU: GIPUZKOA BISITATZEKO PIZGARRIEN PROGRAMA



600.000 €




- **Helburua:** Tokiko kontsumoa sustatzeko ekitaldiak, jarduerak, ibilbideak, lehiaketak, promozioak eta abar sortzea.
- **Hartzaileak:** Gipuzkoako Turismo enpresen elkarteak, Udalak eta eskualdeak.
- **Jarduteko aldia:** 2020ko maiatzatik urte amaierara arte.



2.3.3 SUSTATU: “GIPUZKOA HEDATUZ 2021” SUSTAPEN PROGRAMA

 **100.000 €**



- **Helburua:** 2021 urtera begira, famtrip, presstrip, workshop, blogarien bisiten eta abarren antolaketa sustatzea, Gipuzkoako berezitasunak ezagutarazteko eta sustatzeko, lehentasunezko merkatuetan.
- **Jarduteko aldia:** 2020ko irailetik aurrera.



2.3.4 SUSTATU: GIPUZKOAKO TURISMO-BULEGOA LURRALDE-SUSTAPENAREN ARDATZ EGITURATZAILE GISA KOKATZEKO PROGRAMA

 **300.000 €**



- **Helburua:** Tokiko egoilarrak eta enpresak Gipuzkoako turismo-bulegora zuzentzea (zuzenean edo birtualki), ekimenak ezagutu edo prosatzeko, informazioa jaso edo hedatzeko. Turismo Bulegoaren bilakaera, enpresen elkarlanerako topaleku, ekintzailetasunaren eta proiektu berrien bultzatzaile, proiektu turistiko berritzaileen inkubazio zentroa.
- **Nori zuzendua:** Gipuzkoako biztanle eta enpresak.
- **Jarduteko aldia:** 2020ko maiatzatik urte amaierara arte.



GIPUZKOAN TURISMOA SUSPERTZEKO PLANAREN AURREKONTU-LABURPENA

	1. ARDATZA: BABESTU	900.000 €
	COVID-19: AUTONOMOENTZAKO ETA TURISMO-SEKTOREKO ETEENTZAKO LAGUNTZA PROGRAMA	300.000 €
	TURISMO AGENTEEN DIRULAGUNTZA IZENDUNEN PROGRAMA	600.000 €
	2. ARDATZA: PRESTATU	400.000 €
	INGURUNE SEGURUAK SORTZEKO PROGRAMA	100.000 €
	COVID-19 OSTEKO BERRABIATZE PROGRAMA	200.000 €
	MERKATUAK BERREZAGUTZEKO PROGRAMA	100.000 €
	3. ARDATZA: SUSTATU	1.100.000 €
	“BERTAN DUZU” KOMUNIKAZIO PROGRAMA	100.000 €
	GIPUZKOA BISITATZEKO PIZGARRIEN PROGRAMA	600.000 €
	“GIPUZKOA HEDATUZ 2021” SUSTAPEN PROGRAMA	100.000 €
	GIPUZKOAKO TURISMO-BULEGOA LURRALDE-SUSTAPENAREN ARDATZ EGITURATZAILE GISA KOKATZEKO PROGRAMA	300.000 €

GUZTIRA

2.400.000 €

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

**Elkarlanean gara indartsu. Aurrera
egingo dugu.**

www.gipuzkoa.eus